

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### MANZANOSKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

**Jendaurrean jartzea etxeak edateko urez hornitzearen tasa ordaindu behar dutenen kontribuzio errolda, eta kobratzeko moduan jartzea, borondatezko epean, 2016ko lehen seihilekoko ordainagiriak**

Etxeak edateko urez hornitzearen tasa (2016ko lehenengo seihilekoa) ordaindu behar dutenen kontribuzio errolda egin da, baita 2016ko abuztuaren 26an onartu ere. Iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hamabost egun baliodunez jarriko da jendaurrean errolda hori, interesdunek aztertu eta egokiak iruditutako erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Interesdunek administrazio batzarraren kontzejua aretoan aztertu ahal izango dute espedienteak.

Kontribuzio errolda jendaurrean jartzean, hura osatzen duten likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, 98. artikulua 3. paragrafoan xedatutakoaren arabera; dena dela, interesdunek esleitu zaizkien kuoten aurkako berraztertze errekurtsoa aurkez dezakete, hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsoak eta erreklamazioak administrazio batzarreko errejidore-lehendakariari aurkeztuko zaizkio, aurretik adierazi diren epeen barruan.

Ordaintzeko borondatezko epea 2016ko irailaren 20an hasi eta urriaren 20an bukatuko da, egun bi horiek barne direla.

Zergaren ordainketa helbideratuta daukatenei 2016ko urriaren 5ean kobratuko zaie.

Finantza erakundeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideratuta ez daukaten zergadunek Kutxabanken bulegoetan ordainduko dute, 08:30etik 10:30era, etxean jasoko duten kobratze jakinarazpena aurkeztuta, edo, bestela, Vitalneten bidez. Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo du administrazio batzarrak.

Finantza erakundeetan helbideratutako ordainketak: administrazio batzarrak zordunketa zuzenean kudeatuko du ordainketa helbideratu den finantza erakundeetako kontuetan.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrerarik egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekurgu eta guzti, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergei buruzkoak, 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Manzanos, 2016ko abuztuaren 26a

*Lehendakaria*

*FRANCISCO JAVIER ARGOTE URCELAI*